

Hernaniko emakumeak ez hain urrutiko garaietan (1936-1970)

Udaletxeko beka batekin hasi zen ideia. Jende askok ez du gaiari buruz hitz egin nahi oso gaizki pasa zutelako eta ahaztu nahi dutelako.

Lau lagunek, tartean bi hernaniar, gerra osteko emakumeen bizimoduari buruzko liburu bat idatzi dute. Horretarako herritarrek elkarriketatu dituzte eta garai hartako istorio eta komeriak azaldu dituzte liburuan.

Nola bururatu zitzaizuen ideia?

Historia guztia, Hernaniko berdintasun saila eta udaletxeak atera zuten beka batekin hasi zen. Orduan, lau lagun elkartu, animatu eta ideia bat aurkeztea pentsatu genuen: Emakumeak Hernaniko Historian, gerra ostean zehazki.

Honen helburua emakume horiei ahotsa ematea zen. Historian, isilduak izan ziren emakume hauen ahotsa, argitara ateratzea.

Karrera amaieran proiekturik egin al zenuten?

Gaur egun Historia edo Antropologian ez dago proiekturik. Normalean karrera bukatzen duzu, azterketa egin eta gaintzen baduzu titulua ematen dizute. Orduan, egitasmo honekin ikasitakoa praktikan jarri genuen. Karrerak aukera ematen du; baina benetan praktikan ikasi behar genuen.

Nola antolatu duzue lana? Zaila izan al da?

Hasieran, ez zen hain zaila. Lau ginen, bi Hernanikoak eta besteak Atun eta Barakaldokoak. Baina Donostian bizi ziren. Orduan, elkarriketak egiteko lana banatu egin genuen. Adibidez, guk gehiago elkarriketak eta haiek transkribapenak egiten zituzten.

Zaila? Lehenengo proiektua izanik bai. Ez dakizulako nondik jo, lana nola banatu; antropologian irakasle baten laguntza izan dugu eta bideratu gaitu lana nola egin eta gure helburua lortzeko, gauza batzuk lortzeko denbora asko behar izan dugu.

Elkarriketak ere zailak



Garra Gonzalez eta Uxo Barrutiabengoa egitasmoa azaltzen.

izan ziren. Errazagoa da konfidantza edukitzean, gauzak azaltzea. Horregatik gure inguruko lagun edo ezagunen aiton-amonengana jo genuenean informazio gehiago lortu genuen.

Jende askok ez du hitz egin nahi trauma daukalako. Garai hartan oso gaizki pasa zuten eta ahaztu egin nahi dute. Azkenean diskurtso bera esaten dizute. Edozein galdera eginda ere, diskurtso bera zeukaten.

Nola aukeratu duzue elkarriketak egiteko jendea?

Hogei pertsona elkarriketatu ditugu. Lehenengo base-rriz-baserriz joan ginen, atea jo eta horrelaxe. Hasieran sekulako lotsa! Gainera, ez dugu adin horretako ezagunik. Batzutan kaletik ere elkarriketak egin ditugu.

Adibidez, estraperloari buruz dendetara sartu eta zuzenean galdetzen genuen; Apopiloie buruzko informazioa berriz Hernanin bizi den jendeari eta Intxaurrondoko "Centro Extremeñora" ere joan ginen.

Elkarriketak egiteko ero moduan ibili ginen...! Aurpegi, askorekin!

Zein jarrera izan dute elkarriketatuek?

Denok oso ona. Normala da; hasieran zertarako balio duen galdetzen zuten. Inork ez genuen adin horretarako eza-

gunik. Baina adibidez, lagun baten amonarengana joan eta konfidantza gehiago zeukanez gauzak lasaiago kontatzen zizkigun, horrela gauza gehiago kontatuz.

Nola lortu duzue informazioa guztia?

Hernanin artxiboak, liburu asko, artikulua; argazkiekin ere ibili gara. Irudiek informazio asko ematen dizute. Azken urteetan gerra zibilari buruz asko idatzi dute, baina ez emakumeari buruz. Antropologian aldiz, emakumearen gaia askoz gehiago landu dute.

Gustura zaudete liburuarekin?

Guretzat, polita izan da. Gainera jendeari gustatu zaio. Irakurtzeko erraza da eta gure lehenengo liburua da eta ilusio handia egiten digu.

Noiz atera zenuten liburua? Zenbat ale saldu dira?

Abenduan atera genuen, baina ez dakigu ea zenbat saldu diren. Batzuk euskaraz eta besteak gaztelaniaz. Guk euskaraz idatzi dugu eta itzulpenak beste pertsona batzuk egin dituzte.

Zer izan da gehien kostatu zaizuena?

Idazteko prozesua. Informazio pila bat daukazu. Irakasle baten laguntza izan

dugu, baina hala ere, oso zaila izan da.

Pasadizo ugari jaso dituzue liburuan, zein izan da gehien harritu zaituztena?

Agian, estraperloari buruz kontatu zigutena. Hernaniko emakumeak baserritik jaitzen ziren eta tranbia hartzen zuten Donostiara joateko. Baina legez kanpoko produktuak zituzten saltzeko eta guardiak etortzen baziren, gauzak gorde edo tranbiatik botatzen zituzten, eta gero itzuli eta berriz hartzen zituzten.

Zein desberdintasun dago oraingo emakume eta garai hartako emakumeen artean?

Garai historikoa. Nola moldatzen diren emakumeak lehen eta orain. Lehen beste garai bat zen eta emakumeak bere estrategiak erabiltzen zituzten egunero, egunero, aurrera ateratzeko. Orain, emakumeak lan egin behar dute baina sozialki gora egiteko prest dago. Emakumeen helburua ez da bakarrik familia edo etxean egotea.

Nori zuzendua dago liburua?

Jende arruntari. Gure helburua edozein herritarrek irakurtzeko modukoa izatea zen: gazteek, zaharrek, edozein pertsonarentzat.



Xaboi naturala egitea erraza da.

Ez bota olio, birziklatu

Zertarako? Adibidez, xaboa egin dezakezue. Nola? Orain kontatuko dizuegu.

OSAGAIK:

- Sei litro ur
- Soda (Sosa) Kilo bat
- Giltzurrun gantza eta erabilitako olio (bien artean 6 litro)
- Irina 2 eskukada

Zer behar dugu?

Balde bat, makil bat eta egurrezko kaxoi zahar bat.



Erabiltzen diren tresnak eta osagaiak.

Prozedura:

Hasieran baldean, ura bota, uretan soda bota behar duzue eta makilarekin nahastu. Gero ura hoztu arte itxaron hiru ordu gutxienez. Ura hozten den bitartean giltzurrun gantza sutan jarri behar duzue urtu arte. Ondoren, ura hotza dagoenean olio eta giltzurrun gantza urtu eta gero bota uretara eta nahastu pixkanaka, pixkanaka makilarekin ordularien orratzen norabide berean pixka gogortu arte. Segidan egurrezko kaxoiari papera jarri ez itsasteko eta gero bota nahasketa.

Kutxa estali paper batekin. Egun bat itxaron ondoren xaboa atera eta moztu dezakezue. Nahiz eta xaboa egina egon, erabiltzeko hobe da hamabost egun itxarotea, ondo gogortu arte.

Arropa garbitzeko eta orbainak kentzeko aproposa da eta baita zure gorputza garbitzeko ere. Nahi izanez gero zakurra ere garbitu daiteke, guk probatu dugu eta benetan distiratsu geratzen da.

ANIMATU ETA BIRZIKLATU!

❖ AXERI DANTZA XVIII. MENDEKO JOKOAK



Hernanin hasi baino lehen "berotzen".

Axeri dantza badator

Zein da axeri-dantzaren jatorria ?

Zaila da nondik datorren jakitea baino dirudienez XVIII. mende aldean egiten ziren hainbat jokori axeri dantza deitzen zitzairen. Larramendiren testu batzuetan 1730. urtean agertu zen axeri dantzari buruzko lehen zita. Garai hartan jende askok egiten zuen mendian lan (ikazkinak,...) eta denbora asko pasatzen zuten etxetik kanpo. Horregatik etxera itzultzean sekulako jaia egiten zuten jan, edan, eta dantza bidez joko

batzuk egiten zituzten, joko sinpleak, jendeari adarra jotzeko asmoz. Beraz nahiko bortitzak izaten ziren eta herriko jendea zirikatzen zuten, egun inauterietan egiten den bezala.

Beraz joko hauek oso zaharrak dira. Hasiera batean joko asko zeuden baina urteekin pixkanaka galdu egin dira eta egun herri batzuetan batzuk mantendu dira eta beste herri batzuetan besteak. Hala ere guda garaian urte gutxiz ber-

tan behera geratu ziren, eta Inauteriak debekatu zituztenez herri batzuetan inauterietatik herriko jaietara pasa zituzten. Urte batzuetan axeri dantza egiteaz utzi ondoren Hernanin 1944an CDHK berreskuratu zuen eta Andoainen 1976an Lizar-Makil dantza taldeak. Hernaniko axeri dantzaren doinua zaharrena da eta axeri dantzarako berezia, Andoainen aldiz ohiko kalejira eta beste dantzetakoak erabiltzen dira.

Andoain eta Hernaniko Axeri-dantzaren arteko desberdintasunak

Hasieran Oreretatik hasi eta Aduna bitarteko ia herri guztietan egiten zuten, baina egun Hernanin, Adunan, Andoainen eta Oreretan bakarrik eta herri bakoitzean joko desberdinak egiten dituzte baina denek daukate gauza bat komunean: soka.



Andoainen dorrea egiten duten momentua.

Hernanin benetako soka erabiltzen dute, eta beste herrietan neska-mutilak ilaran joaten dira elkarri helduta soka bat osatuz.

Andoainen, Adunan eta Oreretan dantza bezala hartzen dute, eta herritarrek ez du parte hartzen, ikusle soilak da. Hernanin, ordea, helburua jendea inplikatzeko da, maskuriaren kolpeak hartzeko bada ere.

Hernaniko axeri-dantza San Joan jaietan eta inauterietan izaten da, San Joan jaietan 3 egun eta inauterietan bakarra. Goizeko 9:00etan ateratzen dira 15 bat lagun soka bati helduta, maskuri bana hartuta. Alde zaharrea ibiltzen dira eta noizean behin herriko karkabetan zehar ezkututzen dira.

Ezkutalekutik atera eta jendea hartzen dutenean doinuaren erritmoa bizkortzen dute. Beraiek jendea harrapatu behar dute soka askatu gabe eta maskuriarekin jo bero-bero jarri arte...

Jendeak betikoa dela pentsatu arren, axeriaren figura Luis Telleria dantzazaleak sortu zuen 1988. urtean eta hortik hona urtero mutil bat azaltzen da axeri bat buruan duela. Bere helburua dantza egitea da, jendea distraitu, oharkabean harrapatu eta maskuridunek jotzeko.

Parte hartzeari dagokionez, Hernanin, gaur egun, neskek ere ateratzen dira bai Inauterietan eta San Joanetan azken egunean. Axeri dantza bukatu eta gero parte hartzaileak herriko plazan "dantza" egiten dute eta maskuriak zapaltzen dituzte.

Andoainen, berriz, agerraldi moduan egiten dute eta jendeak ikusle paperean baino ez du parte hartzen. Han, Adunako zaharrek egindako elkarriketen bidez, axeri dantzari buruzko informazioa bildu eta berreskuratu zuten. Orain dantzak dira baina hasieran jokoak ziren. Jatorria Hernaniko bera da. Garai hartan mutil gazteak heldu izateko erritmo moduko bat zen. Bertan gazteek bere ausardia erakutsi behar zuten.

Hasieran mutilek dantzatzen zuten baino 2000 urtetik aurrera neskek ere parte hartzen dute.

Andoainen San Joan egunean egiten da eguerdiko 12:00etan herriko enparantzan. Hasteko aureskua dantzatzen dute udaletxeari begira.

Gero 7 joko egiten dituzte eta azkenekoan dorre bat egiten dute eta goikoak irrintzi bat egiten du heldua dela esateko.

Andoaingo arropa pixka bat berezia da, garai hartan ikazkinak eramaten zuten blusa gorria jantzen dute eta buruan kolorezko zapi bat jartzen dute.

Orriaren egileak (AEK euskaltegia)



GOIAN: Jabi Belloso, Bittor Hernandez, Elena Abad, Marian Arbaizar, Junkal Baro, Eva Fernandez.
BEHEAN: Karmen Romero, Maite Sanchez, Maixabel Karrera, Mertxe Jimenez, Ixiar Eratsun.